

## Helburuak

### “Basauriko Udala barrutik eta kanpotik”

Orokorrean hiritarrek, Udalari buruz, administrazio-erakunde bat dela pentsatzen dute, eta zergak biltzeaz eta gestioak tramitatzeaz arduratzen dela. Hiritarrek udalari buruz duten iruditik kanpo geratzen da, zerbitzu eskaintzaile den kontzeptua.

Baina erakunde horiek denboraren joanean jarraitu duten bilakaera hiritarrengandik, zuretzako izango den kontzeptutik, hurbil egoteaz arduratzea izan da, gobernu-ikuspegi batetik baino areago.

Demokrazia Parte Hartzailea Udal erakundeetara iritsi zenetik, gero eta gehiago ematen zaie hitza hiritarrei, eta ugarituz doaz parte-hartzeko bideak, eta udala gero eta gehiago dago hurrengo kontzeptuei lotua: hiritarrentzat, hiritarrengatik, eta herritarrekin.

Hiru puntu horiek kontuan izanda, jardunaldiak antolatzekoan izan dugun helburua udala herritarrei hurbiltzea izan da, eta egiten dugun lan guztia ezagutzera ematea, bai eraiki barruan egiten dena bai horren erakunde autonomoen bidez egiten dena, modu horretan, Basauriko herritarrek, zerbitzuren batean pentsatzen dutenean, beren udalak eskaintza hori ba ote duen jakiteko, edo bestela, informazioa eman diezaioten ea beste bitartekoaren batera joan behar duten. Halaber, Jardunaldia erakusleho bezala aprobeztatu da online baliabideak eta sortu berri den auzotarren bitartekaritza zerbitzua aurkeztu eta dinamizatzeko.

## Ekintza Plana / Ekintzak

Ekintza planak bi alde izango ditu. Alde batetik, **Udalak ikastetxeentzat antolatu dituen Ate Irekiak Jardunaldiak**, ikasleei hurbildu arazi nahi zaie bai erakundea bera bai horren funtzioak eta funtzionamendua, eta baita ere horko pertsonak ere, modu horretan, Udala lehen eskutik ezagutzeko aukera izan dezaten.

Beste alde batetik, herritar guztiei zuzendutako beste jarduera bat ere planifikatu da, “Udala Kalera Irteten da” izena duena. Eta horren helburua aurrekoaren bera da, hots, mundu guztiak Udala eta horren lana gertutik ezagutu dezala, eta horretarako, bost egunez erakusketa bat egingo da Solobarriako karpan.

Erakusketa antolatzeko, udal arlo eta erakunde bakoitzak bere presentzia eduki ahal izan du, eta horretarako, herritarrei erakusteko erakargarrienak jo diren proiektu, zerbitzu eta gaiak panel batean edo batzuetan erakutsi ahal izan dituzte.

Udala administrazio-erakunde bezala kontsideratzeko kontzeptutik urrutiratzen diren edukiak nabarmendu nahi izan dira, zeren eta helburua zerbitzuei lotutako beste irudi bat ematea izan baita.

Zerbitzu edo proiektu batzuetarako pertsona kualifikatuak izan ditugu adierazpenak emateko, horrela izan da auzotarren Zerbitzuari, Web orriari edo Master Planari dagozkion kasuetan. Gainontzeko zerbitzuak Udaleko gainontzeko pertsonak aurkeztu dituzte, langile eta politikoei.

Ordezkatutako arloak:

- o Modernizazio Arloa
- o Ekonomia eta Enplegu Arloa
- o Herritarren Harremanetarako Arloa
- o Lurralde Politikako Arloa

Erakunde hauek:

- o Udaltzaingoa
- o Gurutze Gorria
- o Babes Zibila
- o Kultur Basauri (Social Antzokia, Arizko Dorretxea, kultur etxeak eta gizarte etxeak)
- o KUE
- o Etxe Maitia udal egoitza

Gainera, erakusketatik barrena ibilbidea sustatzeko helburuz, mahai bat egon da. Lehiaketa baten bidez jendeari galde-sortari erantzuteko eskatzen zitzaion, panel informatibo desberdinetan azaldutako informazioari buruz, horrela, aipatu informazioa irakurri zezatela lortu nahi zen, eta han deskribatutako zerbaitekin gera zitezela. Modu horretan, Udalak zenbat arlo dituen ezagutu dute, Gizarte Kontseiluek funtzionatzen dutela, galdetutako jarduera batzuk zein arlo antolatzen dituen, zeintzuk diren udal erakundeak, eta zeintzuk lan egiten duten lankidetzan, etab.

Mahaiak [www.basauri.net](http://www.basauri.net) Web orria herritarrei hurbiltzen zien, eta hor dagoen informazio osoa aurkezten zien, baita ere horien interesekoak izan zitezkeen Udaleko beste orrialdeetarako edo lekuetarako lotuneak eskaintzen zizkien, eta azkenik, Zuzeneko Kanala erakusten zitzaion, horren bidez egiten baita zerbitzuen katalogorako sarbidea, eta Udaletik pasa gabe tramite asko egin baitaitezke. Nabarmendu egin dira, online tramitazioen erabilgarritasuna, horiek erabiltzeko erraztasuna eta arintasuna. Ordenagailuen aurrean eseri diren pertsonen aurkezpen pertsonalizatua egin ondoren, galde-sorta bat betetzeko eskatzen zitzaion, alde batetik, zerbitzua hobetze aldera beren iritzia ezagutzeko helburuz, eta bestetik, kontzeptuak finkatu eta beren oroimenean basauri.net eta Zuzeneko Kanala gorde zezaten.

Hiru kasuetan, saria hurrengo hauen artean aukeratu behar zen, liburuak, Ingurumeneko poltsa tolesgarriak, Social Antzokiko zinema sarrerak, umeentzako CD Reciclador, Basauriko historiari barrena CD pasealekuak edo Fotocroman argazkia.

Baita ere BASAURITB presente egon da ad hoc programazio baten bidez, horretan alde batetik, goitik begirako Master Planeko Basauriren bideoa, eta horren jarraian Basaurin gertatu diren berri garrantzitsuenen alorra, horiek 2010eko urritik 2011ko martxora bitartean, hileka, hartu dira.

Informazioko panel eta mahaiez gain, simulagailu bat jarri da (argazkiak atera eta aurretik hautatutako atzealdean jartzeko fotokroma) eta puzgarri bat txikien entretenimendurako.

## **Monitorizatuta dauden adierazleak**

Erakusketari buruzko iritzia eta balorazioak eta Udaleko online baliabideak jasotzen dituen galde-sorta erabili da Udalak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko emaitzak neurtzeko.

## **Babeslea**

Udala bera.

## **Baliabideak eta aurrekontua**

Udalarenak berarenak

## **Garapena**

Jardunaldiak planifikatu, garatu eta ebaluatzeko ardura udaleko langileen esku egon da.

## **Finantzazioa**

Finantzazio publikoa

## **Zein kolektibori zuzendua egon den**

Herritar guztiak

## **Hasiera-eguna**

16/03/2011

## **Amaierako eguna**

20/03/2011

## **Informazio gehiago**

Informazio gehiago [www.basauri.net](http://www.basauri.net) orrian